

# + Inaitasuna

VI URTEA - N.º 68

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Otzaila (I) 1960

## Euskaltzaindia lanean

Illabete onen 10-ean be Bilboko Arriaga Teatroan, urtero legez, izan da Euskaltzaindiak prestau dauen jaia. Azkue zanari omenaldi bat egin jakon orain urte batzuk direala eta ordurik ona urte guztietan egin dau Euskaltzaindiak zerbait, euskerearen bizitzea indartuteko zer egin leitekean erakutsirik. Oraingoz, bertsolariak, euskal-teatroa eta euskal kantak dira eredu legez iminten dituzanak, eta aurtan, eskolea dala be zerbait edierazo dau, esanik euskaldun neska-mutikoak euskeraz ikasi bear dituezala euskal-kantak, kristiñau dotriñea, ipuiñak eta abar. Eta, onetara, bideak zabaldu eta erreztu gura ditu apurka apurka, euskaldunen gogoa ori bada, geroago ta gauza geiago egin aal izan daitezkan euskal-arloan ¿Oraindiño eragozpenak dagozala? Baiña, egia esan, geu gara alegiña egin bear dogunak gauzak bigun eta legun iminten eta maitasun eta alkartasunaren bidez estropozu guztiak desegiten. Bide legunetik urrun eldu geintekoz. Bide gogorretik nora ogeigarren gizaldi onetan? No-ra?

Frantziako Euskalerrian gure anaiak lortu dabe zelanbait legearen bidez euskerea eskoletan sartzea eta lanean diardue lege orrek emoten deustien eskuari sendo oraturik.

Geuk be ez ete dogu billatu bear zulotxoan bat, bertatik sarturik legearen aurrean gizon-izenagaz ezagututen direanen artean ezarteko? Europako erriak bide barri bat daroe eta geuk be European beti artu dogu parte aspaldiko urteeta-

tik, eta ez bakarrik European, Ameriketan be asko ta asko.

Orretarako, lenengo lenengo egin bear doguna da, esperantzea sendo eta eten barik izan, itxi alde batera euskereari ainbeste kalte egiten deustien uste ustelak eta ez ibili euskereak eztaukala zeregiñik esaten, bildur barik eta edonon euskeraz egin, ondo edo txarto, baiña egin. Ta azkenez, seme-alabatxoai be irakatsi euskal-kantak edo zertxobait irakurten baiño ezpada be, eta batez be euskerearenganako amodioa eragin. Apurka apurka geuk sortu bear dogu eskolearen bearizana, gauza txikitik asita. Zetako balioko leuke lege bat egingo balitz euskereari eskoletan atek zabal zabal iminirik, aurrera eroateko naikoa indar eta gogo ezpalego gure artean eta iñok jarraituko baleutso? Ez! euskaldun guztiok, edozein kolore daukagula, ardura artu bear dogu euskerea gure ondorengoai indar aundiagoz ütxiten, sustrai aundiagoa artu daien, euskaldun zintzoak bagara beintzat.

Euskaltzaindiak eskuartean daukan beste egiteko aundi bat Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketea egitea da. Aurtan Nafarroan be atera gura dituez bertako txapeldunak. Eta mugaz andiko euskaldunak an bertako txapelketea urtero egiten daben legez andik be izentauko dituez. Eta Euskalerrri osoko ordezkariak batuko dira txapelketa nagusi batean gure erriaren batasunaren indarra gauza guztien gaiñetik erakutsirik. Eta izan be, izatez erri bat gara, administraziño kontuan bat ezpagara be. Zazpirak bat.

# BIZILEKUEN BEARRA

Ona emen kristiñau askok aztuta bizi dogun problema bat. Gaurko munduan sortu dan problema ikaragarri bat. Eta mundu guztian sortu dan lez, danok alegindu bear gara erremedioak topean.

Mundu guztiko arantza mingotsa dala numeru oneek erakusten dabe: Belgika-n 1.600.000 bizileku falta dira. Italia-n 4.000.000 andra-gizon etxe barik bizi dira. Asia-n 500.000.000 gizaseme bizi-modu txarrean dagoz. Latin-Amerikan 11.000.000 bizileku falta. Espaiñian 1.200.000 familia etxe barik.

Gaurko munduaren okerrik aundiena auxe dala esango neuke. Eta onen ondorenak negargarriak direala danok dakigu: familien batasuna, aita-semeen arteko maitasuna arriskuan dagoz. Eta garbitasunari begira zer esango? Gela txiki eta loi batean bi edo iru familia bizi badira, zelako garbitasuna eskatuko deutseeçu?

Orrelako bizimoduan, ezkontzeak be bildurra emoten dau; eta askok berandu arte ixten dabe. Itxaron bearra dauke, etxe bat, bizileku bat aurkitu arte. Eta ezkontzea ainbeste luzatzeak be bere problemak sortzen ditu.

Semeak zelako edukaziñoa artuko dabe? Umeen izakerea etxean ikusita, ez da esatera zarra? Kontuak atara ba, zelakoak izango direan gure baserri askotako kortak baiño zikiñago direan uri bazterretako txaboletan jaio ta azi direan umekondoak.

Azkenez, gela edo zulo zikin orreetan dagoan usaiñagaz eta txabola zarretan sortzen dan ezerrezagaz, gaixo asko alde batetik bestera dabiz. Ume asko jaio baizen laister beste mundura doaz.

“Etxe barik egotea familiarentzat zoritxarrik aundiena da, eta kaltegarria gaiñera”, esan eban Pio XII-garrenak. Jaungoikoak bakarrik daki, bizimodu ori dala-ta, zenbat ezkontza austen direan.

Eta guk ezer egiten ete dogu problema ori ebazteko?

Entzun: liburu batean Jesukristoren parabola baten antzeko auxe irakurri dot:

Jesus-ek esan ei eban: “Uri aundi baten bazterrean, bere bearretik bizi zan familia bat egoan.

Euren bizilekua txabola zar bat besterik ez zan. Jakiña: oe bakarra lo egiteko. Aitak gitxi irabazten eban; ama gaixorik oean, eta eukiezan iru seme txarto-jantzi eta gosetiak, eskean ibiltzen zirean.

Onen ondoan, etxe eder ta alai batean, bere lorategi ta guztizko txalet batean, “familia on” bat bizi zan. Euren olgeta ta joan-etorrietan, “Cadillac” on batean txabola ondotik pasatzen zirean; baiña familia beartsua ikusiarren, aurrera jarraitzen eban.

Beste doméka batean barriz, “senar-emazte on” batzuk, txabola ikusita gero aurrera segidu eban. Izan be priesaz ebizen eleizkizun batera joateko asmotan.

Estranjerutik etorritako senar-emazte batzuk txabolearen ondoan jarri zirean biziten. Ez zirean eleizatiak ez eban errezurik egiten, eleizako sakramentu ta meza kontuan ezer be entzun bakoak zirean; jakiña, eleizatik ezkondu barik egozan. Baiña, familia beartsua ikusi ebenean, errukiz bete zirean eta eurakanà deituaz, alkarregaz bizitea erabagi eban, beste lan eta bizitza itxurazkoagoa lortu bitartean.

Iru familia onetatik zein deritxazu txabola zar aretan bizi zan familiaren lagun urkoa izan zala?

Jesukristok erakutsi euskun parabolea ementxe jazo da. Lagun urkoa maitatzetik urrun dagoz aberats asko. Eta au bearrezkoa da zeruan sartu gura badogu; jaunartzea eta palioa eroatez ez dira naikoa.

Danok ikusten dogu problema onen aunditasuna. Baiña ikustea bakarrik ez da naikoa. Evanjelioko samariar zintzoak (nik jarritako jazoeran estranjeruko familiak) egin ebana danok beteko bagendu, orduan bai, mundu guztiko problema ikaragarri onentzat erabagi-bide berebizikoa etorriko litzakeala.

Kepa Enbeita



# PATXI OFIZINISTEA JAGI DA

Goizeko zazpirak. Neguko eguna. Euria ta aizea burrundada batean. Illun oraindik, egunaren printzarik-be agertu barik iñundik. Illun, otz, euria, aizea...

Ta ofizinsta lo dago. Loaren azpitik daki arek zer jatorkon. Beste lan-egun bat. Iru urte daroaz ofiziña orretan. Beti bardin. Atzo belutxu ogeratu zan. Zazpirak dira. Zortzi t'erdietako ofiziñan egon bear dau.

Zazpi t'erdiak.

Amak diñotso: "Patxi, jaiki zaitez. Sasoia dozu". "Bai, ama, laster", Patxik ogetik.

Buelta erdi artu, ta arrauzika, begiak garbituten ditu. Bere pentsamentuak: "Ofiziñara joan bearra. Gaur-be bai. Ai Jaungoikoa, Jaungoikoa! Madrillera bialtzeko dokumentu areik preparai bear dotaz. Eta Haziendakoak. Ufff! Hazienda orrek bai emoten dabela buru-austea. Gaur azken eguna. Gaur arte alde batera itxi dotaz, baiña gaur derrigor egin bear ditut..."

Barriro amak: "Ia, Patxi, ordua aurrera doata".

Jaiki da. Erdi jantzita eskatzera doa. Oiñetako batzuk tatarrez, galtzak txarto lotuta. "Egun on". Beste anaia armusua jaten dago. A be ofiziñara doa. Arek-be eztauka pozik arpegian. "Egun-on", anaiak.

Iturrira doa. Ur otzagaz garbituten asi da. Puzka dabil. Egin dau bere garbiketea. Eskupañua falta jako. Amari erruak: "Ama, non dago eskupañua? Beti bardin! Beti falta da zeozer emen". "Zure anaiak erabilli dau ontxe-ontxe. Berak jakingo dau non itxi dauan", diñotso amak kuartutik. Eta anaiak diñotso: "or dago beien ganean". Makurtu da Patxi, artzen dau eskupañua ta busti-busti... Aldarrika barriro: "Eskupañu au bustita dago. Ama, ekarri eskupañu siku bat..." Bien bitartean, tangada dariola, eskatz-beia ondatuten dau. Orrek ez deutso ardura Patxi ofiziniñisteari. Badakartso amak eskupañua ta siketu da gure Patxi. Bere anaiak alde egin dau.

Orraztu ta dana egin da gure Patxi ofiziniñista. Badoa barriro bere kuartura. Jazten asi da. Bere pentsamentuak: "Gaur barikua da. Biar zapatua. Arratsaldean jai. Baiña gaur egun guztian bear egin bear. Ezer esaten badeust uzabak Haziendakoagaitik, berak egin daiala. Sapoia da makala bera, bal Letra bi zuzen ipinten ezdaki, ta beti dago asarre. Dana dago txarto eginda. Bere an-

dreagaz gugaz moduan portetan bada, errez apurtuko dira ezkontzak. Nok aguanta olako gizonik! Amaaa! Alkondara au loi dago. Iru egun daroataz beragaz. Ekatzu beste garbi bat. Arin, baiña. Lo zagoz ala?". Amak eztiño agotik kampora ezer, bere kolkorako, barriz: "Oneek semeok emoten daben zeregiña! Jesus! Olakorik! Ezkonduko balitz, ezkondu bein betiko..." Ta badarotso alkondara garbia. "Jemeloak", diñotso Patxik amari begiratu-be egin barik. "Or daukazuz, armarioaren be-aldean".

Dotore-dotore jantzi jaku Patxi ofiziniñista. Ori bai! Gorbata ta guzti. Badoa eskatzera barriro. Oiñetakoak lustreetan dauz berak. Asko da, bai! Amabe arrituta dago. Patxi ofiziniñista oiñetakoak garbietan, ezta orraitio, egunaro olakorik ikusten.

Ama gertu dago, ta armusua ataraten deutso maira. Katillu bete kafesne. "Ogirik nai dozu?", amak. "Ez", Patxik.

"Kafesne au beroegi dago. Beti diñotsut bardin, eta beti armusua bero-bero. Zegaitik eztozu otzago ipinten? Beti bardin". "Tira, ba" — diñotso amak. Eta katillu batetik bestera botaz, otzituten deutso armusua.

Jan dau azkenez gure Patxi ofiziniñistea armusua.

Jagi da maitik, eta sillea lurrera jaurti dau. Ezta pentsau-be altxatzerik. Amak altxatzen dau. "Tira, ba, seme".

Gabardiña artu, ta badoa kalera. "Geroarte", ta ateari sastaka eder bat emon ondoren, ezkillarak bera.

Euria, aizea. Eguna argitzen asi da, baiña oraindik illuntxu dago. An doa. Patxi trolebusari itxaroten. Subertea izan dau. Ontxe-ontxe trolebusa eldu jako.

Sabin Berasaluze



# Dakarrerazko bidetik

Bermeo, Elantxobe ta Lekeitio-ko lagunai.

Jaungoikoak zoriona emon deizuela.

Gaur, eguen goizean zemendiaren ogetaseian eldu gara Canarias-ko Las Palmas-era, Bermeo-tik urten dogunetik zortzi egun igarota gero. Danok ondo. Estropasu barik.

Bermeo-tik laster, eguraldi zantarra euki genduan. Itxasoa geroago ta txarrago ipinten zan lez, Sanandere-ko portuan sartu giñean arribadan. Portu segurua, Sanandere-koa. Nik ez neban ezagututen Sanandere. Egun bi igaro genduzan bertan, eta erea euki neban ango gauzak ikusteko.

Aintxiña komentu aundi bat euki genduan Sanandere-n euskaldun frantziskotarrak. Orain familia-etxe baten bizi gara; eta eleizkizunak, len garaje bat izaniko kapillatxu baten egiten doguz. Frailleak —iru mezadun eta anai bat— pobre bizi dira; pozik baiña, Aita San Frantziskoak gura eban lez, Kristoren zoriona ta bakea inguruan zabalitzen.

Arraintzaleen auzotegian, Itxas Apostoladuko Klub-era bisitalditxu bat egin neban. Lokal eder bat dauke an arraintzaleak, alkarren artean berba egiteko, alkar czagututeko, jateko, edateko, jantzan egiteko; demporea ezoteko, euren bizi-modu soziala gorago jasoteko. Olako tokiak, ainbat ariñen euki bear geunkez geuk-bere Euskalerrian. Bermeo-n beñik bein, bear bearreko gauzea da; eta nire ustez, arraintzaleak ardurra apurtxu bat artzen badabe, laster egin leiteke Bermeo-n Itxas Apostoladuko Etxe eder bat. Ta egingo da, Jaungoikoa lagun.

Bariku goizean urten genduan Sanandere-tik, eta lotu barik etorri gara Canarias-erañio. Eguraldi ederrak euki doguz. Beste urteetakoak baiñio obeak. Ala ta bere, ni guztiz mareatuta ibilli nintzan zapatu arratsalderarte. Arrezkero guztiz ondo.

Ederra Mendi-n goazanentzako, domekea izan zan egunik ederrena. Bare bare egoan itxasoa. Amarrak inguruan, izurdak agertu zirean, eta bat atrapatu. Arratsaldeko bostak aldean, meza santua emon neban. Zelako poza danona, itxaso erdian mezea entzuckeran! Zelako alegrantzia, Santa Maria-koak gure albora Jaungoikoa adoretan urreratu zireanean!

Meza bitartean sermoitxu bat egin neutsen barrukoai. Neure inguruan egozan danak. Eskuaz ikutu neikezan. Zegaitik eta zertarako entzuten eban mezea erakutsi neutsen. Mezea ez zala luzjuko gauzea. Bear bearrekoa zala. Gizonaren izakereak berak eskatuten ebalá. Mezea entzu-

teaz, gizonago egiten zireala, euren bizikera soziala obatu egiten zala eta euren balio espirituzkoak geitu. Santa Maria-koak ez eusten entzuten; ikusi bai baiña nire eskuen eta gorputzaren mogimentuak; eta mezea amaitukeran, danak, itxas-ontzi bietakoak belaunikatu zirean be deinkaziñoa artzeko.

Astelenean lau atun txiki atrapatu ebezan kázan, eta martitzenean dorada bat. Dana etortzen da ondo, bazkarian aldakuntza apurtxu bat geiágo eukiteko. Eguaztenean, Bermeo-ko kapitai batek —non ez dabilta Bermeotarrak?— radio berba egin euskun. Esan euskun ze, Dakar alde-tik etorrelá eta bidean atun asko ikusi ebalá. Barri onek asko poztu ginduzan. Posturea egin eustan barruko gizon batek, gabonetarako gure itxas ontziak irurogei tonelada arrain atrapatu baietz; ta nik ezetz. Animo aundia ikusten da arraintzaleen artean.

Gaur goizeko zortziretan sartu gara Las Palmas-ko portuan. Danok ondo. Biar illuntzean, uste dot urtengo dogula Dakar-rerantz. Bertatik idatziko deusuet barriro. Egin Anaitasuna-ren propaganda erritarren artean. Gorantziak dantontzako Frai Alberto-ren partez. Agur.

Las Palmas de Gran Canaria, 1959 zemendiak 26

Frai Imanol Berriatua

## GIZON ZURRA

*Parisko famadun osagille bat egoan, gau baten, bankeru lagun on bategaz apaltzen.*

*Saldea arizen egozala, bankeruaren emazteak atzamar bat erreta eukala konturatu zan osagilleu, eta pusla aundi bat eukala. Urrezko orratz bategaz zulatu eutson puslea osatuteko.*

*Egun batzuk igarota, nota au artu eban bankeruak: "Zure emaztearen atzamarreko operaziñoa, 500 Pta."*

*Bankeruak zintzo-zintzo ornidu eutsozan, eta biaramonean beste nota au bialdu osagilleari:*

*"Zure igandeko aparria, txanpanagaz, erdoagaz, koñak eta guztiz, 500 Pta. Zor au ainbat ariñen orniduko bazeunskit, asko poztuko nintzake. Lagun dozu, Bankerua!"*

*Osagilleak ixil-ixillik ornidu eutsozan 500 pesetok, eta kitto batean gelditu zirean.*

ALDEKO. Gernika, 1959

# DAKAR ALDETIK

Bermeo, Lekeitio ta Elantxobe-ko laguneri.

Jaungoikoak zoriona emon deizuela.

Oraintxe daukogu asti unetxu bat, eta gerorako itxi barik, toldapean jezarrita, illean illeango karteak idazten asi natxatzue, ea tartekamarteka illaren akaburako amaituten badot.

Gaur, Nativitate egunez, emeretz emarkaziñoak gagoz itxasoan. Gauza tristea da, baiña egia. Gabou aurreko astean, danok arrain asko atrapatu bagendu, orduan bearbada untzi guztiak etorriko giñean errira jaiak pasetan. Baiña aste orretan, arraiñak uts aundia egin euskun. Ori gorabeera, lau embarkaziñok igaro genduan Gabon Gaba Dakar-reko portuan. Antxe batu gintzazan, alan bearrez, RECALDE, COSTA AZUL, ANABEL eta EDERRA MENDI-ko arraintzaleak. Eta danok egin genduan alegiña, gau santu ori alik obetocn pasetako. Batzuk, orregaitiño, ezin gorde izan eben barruko tristezia, eta igarri egiten jaken begietan biotzeko naigabea.

EDERRA MENDI-koak lenengo aldiz ospatuten eben Dakar-ren Gabon Gaua. Orregaitik, neuk erakutsi neutsen zelan atondu afaltokia eta abar. Korrosteko mandan, zubiaren aurrean, kendu genduzan embarazu guztiak. Egin genduan maia luze bat ol zabal bigaz, eta ipiñi genduan alde bietatik jazarlekuak, aspaldiko partez danok aurrez aurre egoteko. Jarri genduan gero tolda bat, eta toldapean argi eder bat eta radioaren altavozak. Zortzi t'erdia izango zirean, afaria jaten asi giñeanean. Jatekoa, badaezpadakoa izan zan; baiña, tira! ez jakuzan falta izan oillokia, txarrikia, edaria, turroia ta... humore ona. Antxe egon giñean kanta ta kanta amaika t'erdietararte. Asko abestu genduan, euskeraz ta erderaz. Larregi erderaz. Bermeo-ko arraintzaleak ez dakie euskerazko kanta askorik. Ez da gauza arrigarria, euskeraz errezetan-bere ez dakie-ta, alper gau t'egun euskeraz jarduten ibilli. Eurak baiña ez dauke orren erru guztia. Parkatu eistazue, ostera-bere esaten badeutsuet, Bermeo-ko arraintzaleak ainbat ariñen Zentro bat bear dabela, euren gizatasuna, euren euskalduntasuna eta euren kristiñautasuna obeto zainduteko. Nik txitean pitean esaten deutset ori barruko laguneri, eta eurak ezin pozaço onartzen izan deuste beti ideia ori. Ba-dakit nik, Bermeo-n nor edo nor-tzuk orren atzetik dabilatzazana. Lagundu deioegun geure indar guztiagaz, asmo eder ori akaburarte eroaten, eta ez deioegun ezelango era-gozpenik ipiñi.

Gaberdi inguruan, arraintzale pillo bategaz, ta-ka taka joan giñean mezatara. Portuko kapillea guztiz txikia zan lez, alboko almatzen aundi ba-

ten atondu zan altarea. Neuk emon neban meza, eta euskerazko sermoitxu bat egin; eta Aita Aspa-k, Itxas Apostoladuko Kapellauak, kantak dirigidu zituan eta verba egin eutsen bertan batu zirean frantses itxas gizon eta euren familiakoeri. Mezea amaituta, artez zuzendu gintzazan geure barkuetara, eta goxeko bostetan urten genduan itxasora, aizea poparean geunkola.


Nativitate eguna joan da, eta ba-daroez ama-bost egun arrain masarik jo barik. Aolantxe dira arraintzuko gorabeerak: batzutan asko, beste batzutan bapez. Lenengo astean —abenduaeren bian eldu giñean Dakar-rera—, dana zan arraiña: nire ustez, atrapatuko ebezan orduan emeretz emarkaziñoak, batez beste, irureun bana kintal bai. Gero bapez. Baiña gero ta gero be, etorri zan barrero gure eguna. Iru bidar etorri naiz ni Dakar-rera, eta ez 'dot eguno ikusi, ille onetako ogetazazpian EDERRA MENDI-k egin eban arraintzua baiño aundiagoa egun baten egiten. Zer zan a ba! Kalada baten, goizeko amaikatari arratsaldeko iruretararte egin zirean, lotu barik, atrapa ta atrapa; eta arrain garbiketa, urrengo goizeko ordu batetan amaitu eben. ANABEL-ek be, arraintzu bardintsua egin eban egun orretan. Urrango egunak-bere, onak izan dira danentzat. Orregaitik pozarren dagoz guztiok, eta Gabon Zarrak danok igaroko ei doguz errian.

Eldu jaku urteko azkenengo gaua. Ia embarkaziño guztiak dagoz portuan. Batzuk bakarrik falta izan dira. Eurak jakingo dabe zegaitik ez direan etorri. Guk beintzat ez dogu ondo ikusi, olako egun baten errira ez etortea. Portuan egon gareanok, guztiz ondo igaro dogu Gabon Zarra. Batzuk, afalduta gero, euskaldun frantsesakaz batera joan gara Katedraleko saloira, eta Euskalerrriaren gaiñeko pelikula eder bat ikusi dogu, Donibane Lohitzune-tik (San Juan de Luz-etik) euskaldun arraintzaleentzako ekarritakoa; eta bitartetan, Xanpun, euskaldun frantses bertsolari famaduari jarduten entzun deusagu, bera be Dakar-era atunetan etorri da-ta.

Naikoa dozue gaurko. Urrangoan esango deutsuet geiago. Agur. Zuen adiskide,

Aita Imanol Berriatua

Dakar, 1959, abenduak 31



# Andrazkoak Hymalaya'ko tontorretara

"Datorren urtean Hymalayako gallurak oinpean ikusiko doguz", esan eban Claude Kogan andreak igazko neguan. Eta periodistak barre egin eutsien. Andrazkoentzat larregi zala eritxen. Baiña Claude baiezkotan egoan: "Itxaron apurtxo bat; gizonak beste bagareala ikusiko dozue".

Andra adoretzu onen asmoa ikaratzekoa zan benetan. Hymalayako Cio-Oyu 8.183 metroko mendia zan gaindu gura ebana. Eta orduraartekoan Hyllary ta Tensing'ek izan ezik, ez eban inortxok igon tontor orretara.

Cio-Oyu leizko itxaso bat lei ei da. Jentillak euren jainkoa, "diosa turquesa" antxe bizi dala esaten dabe. Mendi onen inguruan beste tontor famatu batzuk dagoz: Kangchenj, edo "deabru madarikatua"; Nanga Parga; "mendi gorri". Mendi onetantxe galdu dira gizon asko. Mummery galdu zan lenengo, 1895'an ta arrezkero beste asko ta asko galdu izan dira berton. 1937'an, Karl Wien ospetsua ta bere amabost laguntzaille "mendi gorri" onetan il ziran. Nanda Devi, "jainko santua" da beste tontor baten izena; Chomo Lungma, "jainkoen tronua", Edmund Hillary ta Tensing'ek 1953'an igon ebana.

Cio-Oyu munduko gallurik goregoenetan seigarrena da. Koganek bere oinpean ikusi gura eban mendi bildurgarri au.

Iraillean urten eben Hymalaya barranean. Ogetairu ekiñalditan asko igon eben. Urriaren 8'ra-ko gallurretik ur egozan. Claude Kogan, ezpediziñoaren buru zana, ta Claudine Van der Stratten neska gaztea aurreratu ziran, bien artean tontorreraiño igotekotan. Beingoan ikaragarritzko aize zatarra ta laiñoa sartu ziran. Ezin eitekean ezer ikusi. Eta alako baten lei azpian obiratuta gelditu ziran andrazko biak.

Negargarritzko ezbeare au pasatu zanean, bera jatxi ziran beste ezpediziño bederatziak. Guztiak ziran andrazkoak.

Il ziran bietatik bat Claudine Van der Stratten 26 urteko neska polit eta indartsua zan. Etzan antzerako ezpediziño askotan ibillitakoa, baiña eskiatzen ederto ekian.

Claude Troulet de Kogan mendi tontorrak ugarri ikusitakoa zan. Europako andrarik altuena deitzen eutsien, 6.000 ta 7.000 metroko mendi puntetan sari egona zalako.

1951'an George Kogan-ek bere senar zanagaz

Alpamayok'o tontorrera igon eban. Eurok izan ziran, Peru'n dagoan 6.000 metroko tontor au lenengoz zapaldu ebana. Egoameriketako beste mendi asko be gaindu ebezan. Bertatik Europan etorri ta beingoan, George Kogan gaixotu ta igon zan.

Claude Kogan barriro be Perura joan zan. Bernard Pierre laguntzat ebala, 6.200 metroko Salcantay mendi puntaraiño igon eban.

1953'an Nunkunta Gasnes (7.406 m.) gaindu zituan. Azkenengo au igotzerakoan, atxarte baten apurtu zan beragaz joian Erich Gauchart Suizako mendigoizalerik onenatarikoa.

Raimond Lambert mutil gazteagaz batera Hymalayako Cio-Oyu (Koganen eriotz mendia) igotzea pentsatu eban 1954'an. Tontorretik eun batzuk metrora egozala ikaragarritzko ekaitz batela garbitu izan zituan, eta bera jatxi bear izan eben.

Claude Kogan izan da Groelandiako iru tontor lenengoz zapaldu ditua. Eta Caucaso'ko Elbruz tontorrean be berau izan zan lenengoa.

Biotzez maite izan eban senarraren erretratu bat eroaten eban beti. Eta igotzen ebazan mendien tontor-tontorrean edur edo lei azpian gordetan eban...

Bere azkeneko espediziño onetan Cio-Oyu'n gallurretik 500 bat metrora obiratuta gelditu da 7.500 metroko alturan edur azpian betiko, beste senarraren erretratuagaz. Eta beragaz, Claudine Van der Stratten, 26 urteko neskatilla zolia. Tontorreko jentillen jainkotxoak —diosa turquesak— bere esku leizkoakaz zapaldu egin dauz andratrebe biak.

Ez ete da izango andrazkoen artean Cio-Oyu'ko ikaragarria gainduko dauanik?

I. K. Guarrotxena





# Neska mutillak alkarregaz berbetan

Gaur goizean, Prantziako Euskalerrian agertzen dan GAZTE aldizkaria irakurtzen nengoala, lan-txo bik, artikulu bik mira egin deustee. Eta nire buruari esan deusat ANAITASUNA-n ederto etorriko litzakezala. Emen dozuez ba.

Zer pentsetan ete dabe mutil gazteak neskati-lla gazteak dirala-ta?

Gaur nire espiritua apurtxu bat nasaitu egin gura neuke zueri, mutil gazteori, konseju bat eskatuz. "Zer pentsetan ete dozue neska gazteetaz?"

Ba, zuek bardin esan zeinke: "Txo, orrek erropa arroegia daroa", edo "sudurra luzeegia" edo, nik dakit zer?

Eta ari zeinteez gura dozuen beste, gu be zuekaitik bardin ari gara-ta: "Begiratu eiona orreri, gaur ez dau orrek bizarra dana ebagi", edo "prakak luzeegiak daroaz", edo "buru aundiegia dauko"...

Zuek gugaitik eta gu zuekaitik, danok ete doguz, ba, ainbeste falta? Ezin ete geinke puntu ori argitu? Nolakoa gura dozue izatea zuentzako gura zeunkeen neskatoa? Ia zelako erantzuna emoten deuskuzuen! Idatzil!

Nik asten naizenerako pentsetan dodana, eta egunero nire espirituan dabillena onelakoa gura neuke: lenengo oso eleizakoa (gauzak ondo pentsatuta orixe da bear-bearrenekoa), bearrerako maitasuna daukana, eta taberna ta ostatueta beti neurritz dabillena. Iru gauza orreek dituana da niretzako familiaren erroa eta zimendua. "Tunnel" deritxen prakakaz dabizenak izan daitezela kanpotarrentzat eta gu "mutil eta neska lagunok" egon gaitezkan beti Euskalerrian, orrela geroago eta geiago goratua eta aipatua izan daiten gure Erria. Ia zelako erantzuna bialtzen deuskuzuen. Esan emen zuen gogoetak eta amesak. Bien bitartean gora Euskalerrri maitea!

17 urteko Neska bat

## Mutiko baten erantzuna

Joan dan aldiko GAZTE aldizkarian 17 urteko neska gazte baten berbak irakurri dodaz mutil gazteen gainean. Lenengo eskerrak emon bear deusadaz bere ikus-mirea garbi erakutsi dau-lako.

Baiña ez eizu pentsatu zugaz bat natorrela.

Sarritan lagun artean naizta ainbat esakera erabili, ez uste ori mutil gazteen egiazko pentsakerea danik. Ez uste izan mutil batek neska bateri begiraten deusanean, eta batez be bere bizitzako lagunaren billa doanean, "zelan ibiltan dan" edo "zelan jazten dan" edo "bere arpegia zelan pintetan dauan" edo antzeko gauzarik begiraten dauanik.

Ez, azala bazterrera itxita barrurago begiraten dau, aren biotzeko eta barrukotasunai, azalak baiña askozaz be balio aundiagoa daukeelako.

Edadeen batean bear bada, neska gazteak, —zorionez ez danak—, euren barruko tasunak edertu bearrean euren azala edertzen ibiltan dira, "B.B" famatuaren itxurak artuta geroa seguru daukeela ustez-edo.

Ori da nire ustez neska gazte batek egin aal leikean utsik aundiena.

Zuen geroa ez dozue seguru izango azala apainduz, barrua landuz baiña.

Mutil bat

Gure errietako neska-mutillak zer diñoie? Gure aldizkariaren orrialdeetan ba-daukee lekua euren gogoak azaltzeko.

Kepa

## OKELEA KARUTU

*Aurrez aurre bizi zirean kale batean, osagille bat eta okela-saltzaille bat. Onen den dan erosten eban arek okelea beretzat.*

*Egun baten okela-saltzailleak okelearen prezioa lau-errieleko batzuk jaso ebazan. Egun batzuk gero, osagilleagana joan bearra izan eban, atzamar bat dindilizka. Ebagi eutson atzamar ori osagilleak, eta baiña ogei ogerleko eskatu-be operaziñoagaitik.*

*Okela-saltzailleak, begiak zabal-zabalik, diñotso:*

*—Lengo egunean beste bateri operaziño bardiñagaitik amar ogerleko baiña ezeutsazak kendu.*

*Osagilleak orduan:*

*—Egia dok. Baiña ik okelearen prezioa igon dok, bai, ta nik azurrarena igon joatek.*

Bizkaiko Ahorro-Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortu du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oinarriak auek dira:

a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke novelak.  
b) Gaia nai dan bezelakoa izan ditekete, eta lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.

c) Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.

d) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.

e) Saria, gabe gelditu ditekete egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.

f) Batzarrea Bizkaiko Ahorro-Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lanak bialtzeke epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro-Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.

g) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6 - Bilbao) 1960-gko uztaillaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemarean giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

JAZORIKOA

*Benetan-be, kontatuko deutsuedan au egia da, jazorikoa.*

*Bein baten joan zan Fruiz'tar bat Mungiko errira ango ganaduak eta ikustera. Ne-gua zan, eta ondo bazkaldu ondoren —oba ez!— gabardiña barri on bat erosteko esan eutsala goizean bere emazteak oroitu zan gure gizona. Gabardiña barik etxera ez etorteko esan eutson ganera.*

*Joan zan, ba, denda batera, ta erosi eban gabardiña, benetan ederra, egoanik karuen eta onena. Saltzailleak esan ei eutson oberik ezegoala, ta 100 errial merkiago egi-ten eutsola.*

*Gabardiña barria lepoan eukala, an joian gure gizona pozik etxera. Baña euria asi zan bota alean. Eta gizonak pentsau eban bere kolkorako: "Zelan erakutsiko deusat gabardiña barria busti-bustirik nire emazteari? Ez orixe!". Kendu eban gabardiña, eta kolkoan sartu eban, jakepean, ondo tolestuta.*

*Euria geratu barik jaurti eban zeruak egun aretan, eta gure gizonari jakea guztiz ondatu jakon, kanpo aldetik eta barrutik, eta gabardiña be bai.*

*Etxera eldu zanean, atara eban gabardiña jakepetik emazteari erakusteko. Busti busti egoan, eta ganera jakearen tintea eukan. Benetan alperrik galduta.*

*Eztakigu emazteak zer esan eutsan...*

Seperiño Onaindiak kontauta Gernikan.

BERE LENGUSIÑA BATERI,  
AREN EZKONTZAN AZPILLAGA-K

1

Pozek beterik nagon garaian  
Eraso bear lanari  
Zarren gustua bertsoz egin nai  
Bakarrik ez gazteari  
Besarkada bat eman ondoren  
Nere lengusiñeari  
Lagun senide eta guraso  
Emen diranak agiri  
Txalo bizi bat jo zaiozue  
Danok ezkon-berriari.

2

Anai arrebak ez gera baña  
Lengusuak baño geyo  
Plater bateko janariz azi  
Ia kabi baten jayo  
Guk izan degu anai-arreba  
Askok ez aña amodiyo  
Ta oraingoan banatu gera  
Ezkontza dala mediyo  
Bere zor leku TORRE-ZARRARI  
Agur on bat egin diyo.

3

Zeñek neurtu gure arteko  
Anai-arrebafasunak  
Oiturak berdiñ dakiguz biok  
Ao batetik entzunak  
Kabi zarraren abatik datoz  
Bakearen laztasunak  
Gerra osteko urte latzetan  
Zelako estutasunak  
Jaun-Goikuari milloi bat esker  
Sendo deguz osasunak.

4

Irailak duan zortzian ditu  
Oitalau urte paziak  
Nik ere laister betetzen ditut  
Ez dira izan luziak  
Bikiak diran bezelaxenik  
Gerade biok aziak  
Urte txarrean jaiioak baña  
Pasatu dira guziak  
Geure tokitan poz pozik gaude  
Jaun-Goikoari graziak.

5

Nere bertsoak azaldu ditu  
Maitasun ezaugarriak  
Danak negarrez zuen biotzak  
Ez dira marmol ta arriak  
Kabi zarraren bake santua  
Eztu pagatzen urriak  
Au gogorraego esango nuke  
Al balu nere eztarriak  
Ta azkenean danok erantzun  
GORA GAUR EZKON-BERRIAK.